

**DECRETO N° 0143. DEKRETUA**  
**DATA/FECHA: 24-01-2017**  
**Erref.: OS-367/16**

**ALKATETZA-UDALBURUTZA ARLOA**  
**AREA ALCALDÍA-PRESIDENCIA**

**San Martingo udal hilerria.- Zerbitzuen ordutegia aldatzea**

San Martingo udal hilerria zerbitzu publikorako ondasuna den heinean, Udaltzaren kudeaketa, zaintza eta zuzendaritzapean dago eskusiboki, nahiz eta autoritate judizialek eta, hala dagokionean, osasun autoritateek hilerriaren gaineko ahalmenak izaten jarraitu.

Aurrekoarekin bat, Udalarari dagokio hilerria antolatzea, kontserbatzea eta atontzea, baita barne-araubidea xedatzea ere, betiere, hiletei dagokienez indarrean dagoen araudiarekin bat.

**IKUSI EGIN DA** udal ingeniari teknikoaren txostena (erref.: I-008/17), zeinetan azaltzen duen "gaur egun hiletan ondoren, jarraian egiten dira ehorzketak, normalean, arratsaldean eta, batzuetan, iluntze aldera (20:30). Horiek horrela, bakarrik aritu ohi den ehorzlearen lan-baldintzak ez dira onenak izaten lan-osasunaren ikuspuntutik, bereziki neguan.

Ehorzketa panteoi edo hilobietan egin behar denean, nahitaezkoa da ehorzleak udal langileen laguntza izatea, baina udal langileek ez dute arratsaldean lan egiten, ezta jaiegunetan ere, ehorzketa gehienak egun eta ordu horietan izaten diren arren.

Adierazitako arazoak konpontzeko hau proposatzen da:

1. Gorpuk jasotzeko, ehorzteko eta hobitik ateratzeko ordutegia aldatzea **astelehenetik ostiralera, 8:00etatik 13:00etara** izan dadin.

Beraz, aurretik egiten den zeremonia mota edozein izanda ere, ehorzte-enpresa izango da gorpua gordetzeko arduraduna adostutako jasotze ordua iritsi arte.

Adierazitako ordutegien ondorioz ez bada betetzen zendutakoari lur emateko legezko epea, udal zerbitzua aldatuko da indarrean dagoen araudia betetzeko."

Obra, Zerbitzu, mantentze-lan eta Landa-ingurune Arloko zinegotzi ordezkari laguntzaileak proposatuta eta Legeak ematen dizkion aginpideak bitarte, alkate-udalburuak

**EBATZI DU:**

**LEHENENGOA.-** Onestea San Martingo udal hilerriko zerbitzuen ordutegia aldatzea. Hortaz, Dekretu hau ematen den egunaren biharamunetik aurrera, **astelehenetik ostiralera 8:00etatik 13:00etarakoa izango da ordutegia.**

Beraz, aurretik egiten den zeremonia mota edozein izanda ere, ehorzte-enpresa izango da gorpua gordetzeko arduraduna adostutako jasotze ordua iritsi arte.

**BIGARRENA.-** LEHENENGO puntuan adierazitako ordutegiak zendutakoei lur emateko legezko epea betetzea eragozten dutenean baino ez da aldatuko ordutegi berria.

**HIRUGARRENA.-** Aditzera ematea erabaki hau udal hilerraren arduradunari nahiz ehorzte-enpresari eta horren erabakia argitaratzea udal webgunean.

**Laudio, 2017ko urtarrilak 24**  
**Llodio, 24 de enero de 2017**

**Idazkaria**  
**La secretaria**

**Alkate-udalburua**  
**El alcalde-presidente**

- M<sup>a</sup> Aranzazu Lili Salazar -

- Jon Iñaki Urkixo Orueta -